

Legutio Gerra Zibilean en la Guerra Civil

Izan zirelako, gara
Garelako, izango dira

1936ko altxamenduak Legutio Gerrako frontearen jarri zuen. Nazionalak gure herriko kontrola hartu zuten, eta errepublikaren aldekoentzako Legutio bereganatzea helburu bihurtu zen; baina gogor borrokatu baziren ere, ez zuten lortu.

La sublevación de 1936 puso a Legutio en el frente de Guerra. Los nacionales se hicieron con el control de nuestro municipio y las tropas leales a la república lo convirtieron en su objetivo pero, tras intensas luchas, finalmente no pudo ser recuperado.

Memoria ibilbideak Itinerarios de la Memoria

Memoria ibilbideei esker, Gerra Zibileko gertaera eta tokietara hurbil gaitzake seinaleztatutako ibilbideetatik. Gertaera haiek, euren lekuko izan ziren pertsonen oroimenean bizirik irauten badute ere, askotan erabat ezezagunak dira belaunaldi berrientzat.

Los Itinerarios de la Memoria permiten acercarnos mediante recorridos señalizados a aquellos acontecimientos y lugares de la Guerra Civil que, si bien perduran en la memoria de las personas que los vivieron, resultan, a menudo, desconocidos para las nuevas generaciones.



Joseren baso Memoria ibilbidea Itinerario de la Memoria 3,2 km 40 m

Joseren basoko Memoriaren Ibilbidea Albinako urtegiaren ondoan dagoen aparkaleku gisa erabiltzen den eremutik abiatzen da. Bertara autoz edo GR 38 ibilbiderari jarraituz hel gaitzake.

Pagadi ederren artean doan ibilbidea Joseren bason gotortutako multzora hurbiltzeko aukera eskaintzen digu, errepublikazaleek Arabako frontearen eraikitako defentsa egitura nagusienetakoa. Gotortutako multzoak metrailadorearentzako habia du erdian eta alboetan bi babesleku aktibo eraiki zituzten. Zeberioko miliziano baten sinadura bitxia dago egitura honetan. Legutio eta Otxandio arteko errepide zaharra kontrolatzeko eraiki zen. Errepide zaharra urpean geratu zen 1957an Urrunagako urtegia eraiki zutenean.

El Itinerario de la Memoria de Joseren baso parte de la zona utilizada como aparcamiento junto al pantano de Albina, a donde podemos acercarnos en coche o siguiendo el trazado del sendero GR 38.

Un bello camino entre hayas nos acerca hasta el fortín de Joseren baso, una de las estructuras defensivas que el bando del bando republicano mandó construir en el frente de Álava. Un conjunto fortificado formado por un nido de ametralladora con dos abrigos activos laterales, que esconden una curiosa rúbrica de un miliciano de Zeberio. Se alzó para el control de la vieja carretera entre Legutio y Otxandio, actualmente oculta bajo las aguas del embalse de Urrunaga, construido en 1957.



Albertia Memoria ibilbidea Itinerario de la Memoria 9,6 km 240 m

Albertiako Memoria Ibilbidea Legutioko hilerri zaharretik abiatzen da, oraindik Gerra Zibileko gertaeren aztarnak dituen mendi estrategiko honetara igotzeko. Bideko pagadien eta tontorra estaltzen dutenen artean, mendi honen defentsarako egin ziren lubakien aztarnak ikusi ahalko ditugu.

1937ko martxoaren 31n Bizkaia kontrako eraso nagusia abiatu zenean, Triangulo gorria (Albertia, Jarindo eta Maroto gailurrek osatua) matxinatuen jomuga bilakatu zen frontearen zonalde honetan. Garai hartako testigantzetan jasotakoaren arabera, mendi hauen kontrako bonbardaketa eta artilleria eraso hain izan zen bortitza, egun hartan jaso zituzten inpaktu ugari eragindako ke laino atzean desagertu zirela.

El Itinerario de la Memoria de Albertia parte del viejo cementerio de Legutio para acercarse a este estratégico monte, marcado por los enfrentamientos de la Guerra Civil. Entre las hayas del camino y las que cubren la cima, destacan las numerosas trincheras desde las que se defendió este monte.

Cuando el 31 de marzo de 1937 se inicia la Ofensiva General contra Bizkaia, el denominado "Triángulo rojo", formado por las cimas Albertia, Jarindo y Maroto, fue el objetivo principal del bando sublevado en este frente. Los bombardeos sobre estas cimas fueron tan intensos que, según se recoge en los testimonios de la época, estos montes desaparecieron bajo el humo de los numerosos impactos que recibieron aquel día.



Txabolapea Memoria ibilbidea Itinerario de la Memoria 4 km 100 m

Legutioko batailan Txabolapea pinudia gune estrategikoa izan zen eta bere kontrolerako borroka handiak eman ziren bi bandoen artean, baja ugari eragin zituztenak.

Txabolapeako Memoria Ibilbidea San Blas elizaren ondotik abiatzen da eta pinudira hurbiltzeko aukera ematen digu. Ibilbide honi esker, borroka egun haietako agertokiak eta liskar haietan hildako bi pertsonen hobiak bisitatu ahalko ditugu. 2013an eta 2017an atera zituzten lurpetik hobi hauetako gorpuzkiak.

Gaur egun, pinudiak defentsarako eraikitako lubakien aztarnak gordetzen ditu, baita espazio horren kontra jaurtitako bonba ugarien markak ere.

Durante la Batalla de Villarreal, el pinar de Txabolapea fue un enclave estratégico por el que combatieron ambos bandos y que se saldó con una terrible cantidad de bajas.

El Itinerario de la Memoria de Txabolapea parte de la iglesia de San Blas y por un cómodo paseo nos acerca hasta el pinar. En este recorrido podréis visitar los escenarios de aquella cruenta batalla y los lugares en los que en 2013 y 2017 fueron exhumados los restos de dos combatientes.

Hoy, el pinar conserva la huella de las trincheras construidas para la defensa de este monte, así como las marcas de las numerosas bombas que se lanzaron sobre él.

Memoria ibilbideak Itinerarios de la Memoria

Albertia - Joseren baso - Txabolapea Legutio

©Azaleko argizkiak: L. Ojanguren. GAO eta EAO



Gure lurraldean Gerra Zibileko gertakariak bizi behar izan zituzten pertsonen omenez. Gune hauen defentsan parte hartu zutenen omenez eta gure lurraldean beraien bitzta zein gehien maite zituzten pertsonena babesteko leku bat bilatu zutenen omenez.

Memoria ibilbideak Itinerarios de la Memoria


En memoria de aquellas personas que sufrieron los acontecimientos de la Guerra Civil, de aquellas que participaron en la defensa de estos espacios y de las que buscaron en nuestro territorio un lugar donde proteger su vida y la de sus seres queridos.



araba álava
foru aldundia diputación foral

Ayuntamiento de LEGUTIO
LEGUTIOKO Udala

Legutio Gerra Zibilean en la Guerra Civil 1936-1937




Joserren baso



"Azaroaren 30a zen. Gizon asko Santa Engrazia ibaian itota hil omen ziren, ibaia zeharkatu nahian. Ez zen ondo atera operazioa; traizio-kontuak izan zirela tartean esaten zuten"

Dionisio Biteri

Albertia



"Gabonak Albertia puntan paseu nittuan nik, edurrakin edur galantakin. Loiola batailoikoa nintzen ni"

Bartolo Arriola

Txabolapea



"Legutioko batailan alferreko baja asko izan ziren. Elurra ari zuen, eta ia oinak izoztu zitzaizkidan. Lagun bi galdu nituen nik han"

Inazio Ernabide

Emakumeen ahotsa

Vivencias de las mujeres de Legutio

"Gero ekarri ban aitek ardi pare bat, pixkat gizontzeko eta gero jateko. Etxonduen euki genduzen landa handi baten. Gero soldaduek edo erreketiek edo eztaekinok harrapatu eta gu bape barik. Eta ixilik eon biher"

Juana Elortza

"Eon zan oso kastigauta herria, ezin zan euskerarik egin, euskera hitz egitegaiti ba kartzelara, ta hil ta dana ein daubiez hemen herrian!"

M^a Jesús Lopez de Bergara

Memoriaren transmisioa

Ikurrak - leyenda **(112) SOS DEIAK**

LEGUTIOKO MEMORIA IBILBIDEAK
ALBERTIA, JOSEREN BASO, TXABOLAPEA
ITINERARIOS DE LA MEMORIA DE LEGUTIO

	Lubakia Trinchera		Gailurra Cima
	Gotorkelua Blocao		Begiratokia Mirador
	Gotortutako multzoa Conjunto fortificado		Eliza Iglesia
	Errepide hormak Muros de carretera		Ermita Ermita
	Oroimenerako lekua Lugar para la memoria		Hilerriz zaharra Antiguo cementerio
	Bonbardatutako udallerria Municipio bombardeado		Atsedeen lekua Area Recreativa